

KOLDO TELLITU

EUSKARA INDARBERRITZEN JARRAITZEKO BIDE BERRIAK, IKASTOLEN IKUSPEGIA

“Euskara indarberritzen jarraitzeko bide berriak” da jardunaldi hauen izenburua... Egia esanda, hezkuntzan, euskara indarberritzeaz baino atzera ez egiteko estrategiez berba egin beharko genuke, bi faktore oso arriskutsuak ditugulako euskalduntze prozesuak hezkuntzan aurrera egin dezan.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleen euskararen ezagutza eta kalitate mailek behera egin dute. Kezkagarria da, zeharo, kanpo ebaluazioen emaitzek erakutsi diguten argazkia. Gero eta ikasle gehiago D ereduan matrikulatuta egoteak ez duelako, inondik ere, haien euskara mailaren gutxieneko garapena ziurtatzen.

Hezkuntza Akordioak biltzen du ikasleek, Lehen Hezkuntza amaitzerakoan gutxienez, euskaran B1 maila lortu behar dutela,

eta B2 maila Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan. Ados gaude. Alabaina, helburu horiek oso urrun geratzen dira, ez dira lorgarri, gure ustez, A eta B ereduetan ikasten ari diren ikasleentzat, ez eta D ereduan ikasten ari diren askorentzat ere. Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da neurriak hartzea. Ezinbestekoa da hizkuntza ereduak desagertzea eta ikastetxe guztietan euskaldun eleaniztunak bermatuko dituen ikasteredu orokorra ezartzea, hau da, murgiltze eredu ezartzea. Ikastolok argi dugu: benetako murgiltze eredu bat behar dugu; ezin dugu irudikatu aldaketa hau jasotzen ez duen hezkuntza akordio edo legerik.

Ikasle guztiek gutxienez aipatutako euskarazko gaitasun maila lortu behar dute. Ikasle guztiek derrigorrezko hezkuntzaren amaierara

baldintza berdinetan heltzeko, abiapuntua/bizilekua edozein dela ere. Konponbidea ez da baldintza soziolinguistiko makurragoa duten eremuetan gaitasunak jaitea, inondik inora ez. Kontua da, berdintasun-printzipioa bermatzeko ikasleek maila eta gaitasun berdinak eskuratzeko bidean jartzea eta gutxiago duenari gehiago ematea, hau da, baliabide berezituak jartzea, ikasle guztien arteko berdintasuna bermatzeko. Hau da, erabat desegokia litzateke ikastetxea kokatuta dagoen eremuak edo ikastetxeak duen errealitate soziolinguistikoak ikasleen gaitasunak moldatzeko aukera zabalik uztea. Horrek, ikasleen arteko berdintasun-printzipioarekin talka egingo luke.

Zalantzarik gabe, murgiltze eredia orokortzea bakarrik ez du lortuko belaunaldi berriek hizkuntza gaitasun egokia izatea. Aitzitik, beste hainbat neurri ipini behar dira indarrean...

1. Administrazioak behar diren baliabideak bermatu behar dizkie ikastetxe guztiei.
2. Ebaluazio sendo bat behar da, alde batetik, gure ikasleen euskara maila derrigorrezko hezkuntza amaitzerakoan zein den jakiteko eta bestetik, tarteko ebaluazioak emaitzak hobetzeko eta jarritako helburuak lortzeko hartzen diren neurrien jarraipenerako sistema eraginkorra. Ebaluazioa aipatzen dugunean, norabide batean aurrerakuntzen dugu, hobekuntzarako ebaluazioa, hobekuntzarako aukera.
3. Ikastetxeko hizkuntza proiektuari zentralitatea eman behar zaio. Bertan, hezkuntza-komunitatearen harremanak zein ikaskuntza-prozesua arautzen dira, hizkuntza bakoitzak eskola barruan izango duen funtzioa eta hartuko dituen eremuak definituz. Horretarako, Administrazioak ziurtatu behar ditu onartutako ikastetxe guztien Hizkuntza Proiektua gauzatzeko behar beste baliabideak.
4. Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik, hizkuntza konpetentzia, diziplina konpetentzia izateaz gain, oinarritzko zehar konpetentzia bat da, ondorioz hezkuntzaren zutabe nagusi

bezala tratatua izan behar da. Izan ere, konpetentzia soziolinguistikoaren garapena giltzarri da, besteak beste, hizkuntza hautu kontzienteak egin ahal izateko. Konpetentzia komunikatiboa lantzearen ardura hizkuntza-irakasleetatik harago doa. Hala, hizkuntza-irakasgaietan ez ezik, gainerako arloetan ere hizkuntzak kudeatzeko eta arloen bidez komunikazio gaitasuna –euskararena, bereziki– lantzeko helburuak fintzea, planifikatzea eta metodologia berriak txertatzea ezinbesteko izango da.

5. Eskola komunitatearen motibazioa eragiteko ekintzak, sugestioa eta diskurtsoa ezinbestekoa da. Ezagutza lantzeko ardura izateaz gain, erabilerran eragiteko daukan erantzukizunaz ere jabetu behar da eskola komunitatea. Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua familiek babestu behar dute, seme-alaben garapen eleanitzaren aspektu guztietan inplikatu eta proiektuaren protagonista sentitu. Eremitu guztietan, euskararen erabilerraren garrantzia zabaldu behar da. Eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdia, hau da, denbora ez formala.


Jakina, honetan hezkuntza sistema ez da errudun bakarra. Euskarazko kultur erreferentziek behera egin dute gero eta mundu konektatuago honetan, haur eta gazteen komunikatzeko eta kultura kontsumitzeko ohitura berrietan euskarazko kultur eskaintza ur tantak dira ozeano handi batean, kultur erakundeek duela hilabete askotatik hona ohartarazten ari diren gisan. Ordua, da, beraz, hezkuntzak, kulturak eta eskalgintzak bat egin eta herri gisa erantzuteko erronka handi honi.

Bestetik, gero eta haur gehiago ari dira iristen gure ikastetxeetara matrikulazio garaitik kanpo, atzerritar jatorrikoak dira ia denak, aurreko kurtsoan 4.250, honetan 8.000. Ez dakite euskaraz hitz egiten eta gainera beraien familia askok hizkuntza eta kultura hegemonikoaren eradura jotzen dute eta eskola batzordeek, nabarmenki Araban, kasu askotan bideratu dituzte A eta B ereduetara.



hermes

Bi faktoreok arriskutsuak dira euskalduntze prozesuak aurrera egin dezan, eta neurririk hartu ezean, urte batzuetan atzera egin genezake. Bigarrengoari dagokionean, gainera, gizarte segregazio arriskua dugu eta baita hizkuntza segregazio arriskua ere. Ezin dugu



ahaztu atzerriko jatorria duten ikasleek gizarteratzeko eginbidean, hizkuntza ereduen sistema hautespen eta baztertze bidea bihurtu izan dela; beraz segregazioei aurre egiteko hizkuntza ereduak gainditu behar dira.

Gure ustez, euskara, hizkuntzak orokorrean, integratzeko, gizarteratzeko tresna bihurtzen da, ikasleen arteko diferentzia soziokulturalak gainditzeko balio dute eta gizarte kohesioa eta ikasleen aukera berdintasuna lortzeko bide. Atzerriko jatorria duten ikasleak gizarteratzeko eginbidean hizkuntza ereduen sistema hautespen eta baztertze bidea bihurtu izan da.

Baina, argi gera bedi, ikastolok ez ditugu mehatxutzat faktoreok; erronka gisa hartzen ditugu. Bi gai hauek herri apustu dira. Euskal Herri euskalduna nahi dugu, eta kanpotik datozenak gure herrian txertatu nahi ditugu, inklusioaren bitartez. Ikastolok argi dugu ikasle etorri berriak gurean integratuko badira euskaratik eta euskal kulturatik integratuko direla. Hori da gure apustua.

Lehen esan bezala, horretarako ezinbestekoa dugu baliabide gehiago edukitzea, erronken arabera baliabideak edukitzea gure hezkuntza sistemak, bata zein bestea herri apustu baitira eta biek eskatzen baitute esfortzu berezi bat irakasleen aldetik. Erronka hauei aurre egiteko behar diren neurriei estaldura juridiko-politiko emango dien akordio bat ere, Hezkuntza Akordioa, beharrezkoa dugu. Eta akordio hori garatzeko beharrezkoa da Hezkuntza Lege berri bat.